

# SMARA

Testua: PAULA CARBALLEIRA

Irudiak: CAROLE HÉNAFF

Itzulpena: FERNANDO REY ESCALERA

Kartoi gogorrean egina. 15 x 23,5 cm. 64 or. 12 €.

ISAAC DÍAZ PARDO SARIA (LIBURU IRUDIDUN HOBERENA) 2006 (AGE)  
SELECCIÓN THE WHITE RAVENS 2007  
IRAKURKETA PROGRAMA NAZIONALA (SEP Mexiko) 2007  
HEZKUNTZA MINISTERIOAK HAUTATUEN ARTEKOA (Argentina) 2014  
IRAKURKETA PLAN NAZIONALA (PNL Portugal)

**Smara** (euskara)

ISBN 978-84-7681-728-5. Mila gau saila.

**Smara** (gaztelania)

ISBN 978-84-96388-14-7. Siete Leguas.

**Smara** (galegoa)

ISBN 978-84-8464-549-8. Sete Leguas.

**Smara** (portugesas)


ISBN 978-972-8781-77-4. Sete Léguas.

*Inoiz basamortura joaten bazara, bila ezazu iltze-kanelaren  
eta kearen usaina duen hiria, emakume urrina dariona.  
Izar gau ezin ederra goak ditu, harea finezko dunek tapizatuak.  
Inoiz basamortura joaten bazara, galdetu amona Ugagoz,  
ile zuriko amonaz. Hura aurkitzeko zoriona baduzu,  
eska iezaiozu gogoan dituen istorioak kontatzeko.  
Ipuinik ederrenak dakizki, baita ikaragarrienak ere...*

«Smara» haur batek Saharako leku batera egindako bidaiaren istorioa da. Han Ugago amona ezagutuko du, hiria arrotzengandik babesteko gai izana zen azti boteretsu bat.

Bere herriko istorioak kontatuko dizkio, Hodeien Seme-alabenak. Kultura mitikotik abiatuta, eta magia eta misterio dosi handiekin, Paula Carballeirak malenkoniaren aldeko apustua egiten du, lirismo pixka batekin, barrenetik hazten laguntzen digun tristuraren aldarrikapen gisa.

Carole Hénaffek basamortuko bizilekuen laztasuna adierazten du egurrezko *collage* bidez edo zur gaineko akrilikoekin egindako ilustrazioekin, materialen testura nabarmenduz eta kolore biziak erabiliz, oihal, zeramika eta espezetan hain ohikoak direnak. Inspirazioa esperientzia pertsonaletik datorkio, Marokora egindako bidaia batzuk egin eta gero. Fruitu gisa, marrazkiz betetako koaderno ederrak sortu zituen, Saharak eragin zizkion inpresio eta errespetu sentsazioak adierazteko. Bere irudiek hareazko itsaso batera garamatzate, eta haietan badirudi bista zerumugan galtzen dela eta denbora gelditzen dela. Dunak ez dira inoiz berdinak, ematen du bizia hartzen dutela eguzkiaren argiarekin, bere bihurtzeetako itzalak areagotzen baititu eta, orduak aurrera egin ahala, koloreak eraldatzen. Emaizta lan bikaina eta soila da, ukitu surrealista eta misteriotso batekin.



- **Gala:** basamortua, bidaiak, elezaharrak.
- **Adin egokia:** 8 urtetik gora.
- **Nabarmenezkoak:** magia eta misterioa; basamortua: klima, landaredia, ohiturak...; «[Hasiera](#)» eta «[Patxiku](#)» liburuen egile bera; «[Las tres princesas pálidas](#)» ipuinaren irudigile bera (KALANDRAKA).
- **Liburuaren aurrerapena:** <https://issuu.com/kalandraka.com/docs/sm-ara-eusk>

## Paula Carballeira

(Fene, Coruña, 1972)

Filologia Hispanikoan lizentziatua. Interpretazioan, aktore-teknetan eta gorputz adierazpenean trebatua. 1992az geroztik, ipuin-kontalari dabil; Programazio kulturaletan hartu du parte Portugalen, Kolonbian, Brasilen eta Txilen. Aktore modura, 1996tik aurrera, Berrobambán antzerki-taldearekin ari da lanean, eta zuzendari ibiltzen da beste konpainia batzuentzat ere (Centro Dramático Galego); Fikziozko telesailetan aritzen da Galiziako telebistan, eta kolaboratzaile ibili Radio Galegan. Idazle gisa, haur eta gazte literaturako zenbait liburu argitaratu ditu, baita antzezlanak, olerkiak eta narrazioak ere. Besteak beste, Literatura Dramatikoko Manuel María saria jaso du (2006, 2011 eta 2018), baita Frei Martín Sarmiento ere (2016).

## Carole Hénaff

(Orange, Frantzia, 1973)

Filosofia ikasi zuen Censierreko Fakultatean (Paris), baita Antzerkiko Literatura ere. 1994an Bartzelonara aldatu zen, eta han irudigintzan, arte grafikoetan eta animazio digitalean trebatu zen. Lau urtez diseinuko, komunikazioko eta sormen-laneko Peret Estudioan egin zuen lan. 2004an bere estudioa sortu zuen, eta han publizitatean, liburu, aldizkari eta karteletarako irudigintzan aritzen da. Beste sormenaren beste arlo bat bidaia-kaierak egitea da. Bere obra Bartzelonako zenbait erakustokitan izan da. <http://carolehenaff.com>

